

# KSIak eta trantsizio digitala: Kultura eta Sormen Industria lehiakoragoetarantz.

## 3. erronka globala:

### 1. Testuingurua

Nola erabili daitezke adimen artifiziala edo makrodatuak erabiltzaileen portaera eta premiak hobeto ulertzeko? Nola erabili daitezke datuen guneak zerbitzu berriak eskaintzeko? Nola lagundu dezakete bisualizazio-teknologiek eta teknologia multisentsorialek –hala nola errealitate birtualak, errealitate areagotuak edo errealitate hedatuak– produktu eta zerbitzu erakargarriagoak sortzen?

Europako KSISen alderdi interesdunak egokitzen eta berritzen ahalegintzen dira disruptiboak diren eta etengabeko bilakaeran dauden merkatu-espektatiba eta merkatu-portaera batzuen esparruan. Gaitasunik, sarerik, baliabiderik eta finantza-segurtasunik ezak elementu horiekin esperimintatzea eta elementu horiek honako faktore hauen merkaturatzeari begira aplikatzea eragozten die:

1. Gaitasuna: abileziak, konpetentzia digitalak
2. Sarea: aliantzak, elkarteak
3. Finantza-segurtasuna: baliabideak, finantzaketa, inbertsioa eta arriskuen kudeaketa
4. Trantsizio digitala eta Jabetza Intelektualeko Eskubideak babestea

Trantsizio hirukoitzaren esparruan, trantsizio digitala aurkitzen dugu trantsizio sozialaz eta ekologikoaz gain. Trantsizio digital horrek funtsezko garrantzia du KSlen sektore lehiakor eta inpaktu handiko bat lortzeko; baina lehiakortasun hori lortzeko, aukerak identifikatzeaz gain, sakon ezagutu behar ditugu gure esku dauzkagun tresnak eta erremintak.

Tailer honetan, sektoreko egungo teknologien berrikuspen baten eta erronken diagnostiko baten emaitza gisa, gaur egun ditugun erremintak eta tresnak aztertu nahi izan genituen 1) haien egokitasuna aztertzeko eta 2) zenbateraino hobetu ahalko lirartekeen aztertzeko.

### 2. 1. tresna eta erreminta

Gaitasunak eta abileziak garatzea: Kualifikazioak hobetzeko programak, birkualifikazioa eta gaitasunak garatzea > **Sektore-lankidetzarako aliantzak abilezien arloan, Erasmus+**

#### 1. taldea

## Azterketatik etorkizuneko urratsetara:

### Zer ari gara ongi egiten? Zerekin konektatzen dugu?

- Prestakuntza espezifikoa: musika, arkitektura, artxiboak.
- Siloekin pentsatzeak ez ditu etorkizuneko erronkak bideratzen.
- Gaitasun-gabezien batera diseinatutako azterketa, non gabeziak aukeratzat hartzen diren gizarte-arloko gaiak lantzeko.
- Gizarte-ikaskuntzako praktikak eta metodologiak zabaldu behar ditugu. Gizarte-ikaskuntzaren pedagogia.
- Lineako kolaborazioa eta trukea sortzaileen artean YouTuberen eta sare sozialen bidez.
- Ahots berri gehiago onartzea.
- Hasierako prestakuntza ongi dago.
- Garapena eta prestakuntza-programak hainbat enpresa eta arlotan.
- Aurrerapauso bat hezkuntzako siloak, mailak, programak eta diziplinak desagerrarazteko. Hezkuntza zirkularra eta iraunkorra izan dadila lortzea.

### Zer da ongi egiten ez dena? Zer aldatu behar dugu?

- Gaitasunen garapenak/eraikuntzak defizit bat du abiapuntu gisa, baina kualifikatutako pertsona asko daude... Ugaritasun-egoera bat hartu behar dugu abiapuntu gisa gaitasunen ZABALKUNDEA diseinatzeko garaian.
- «Birbideratutako pertsonentzako» prestakuntza ez da nahikoa.
- Zaila da geroko premiak identifikatzea, eta identifikatzen direnean premia berri asko daude jada.
- Prestakuntza irekia (doakoa) edo lineakoa ez da eraginkorra.
- Geldotasuna premiak identifikatzeko (etorkizunari begira) eta premia horiei erantzuteko programak garatzeko garaian.
- Originaltasunez pentsatzea. Sektoreen artean elkar aberastea.
- Lineako iturriak ez dira bakarrik hobetzen. Komunitate konkretuak behar dituzte.
- KSletako pertsonen lankidetzan aritzeko duten erresistentzia.
- Enpresa txikiaren tamaina.
- Ez dago behar besteko loturarik teknologiaren eta edukien artean (banatuak), sarritan siloetan lan egiten da.
- Teknologia/zientzia eta logika instrumentalak menderatzea. Kultura-ohiturak/kultura-ezagutzak eta integrazioa ezin dira galdu.
- Jarrera erreaktiboa aldaketen aurrean.

### Zein dira etorkizuneko gure aspirazioak tresna eta erreminta honetarako?

- Konektatzen eta deskonektatzen ikasi behar dugu edo hori ez da esanguratsua jada?
- Originaltasunez pentsatzea kolaboratzeko eta konfiantza irabazteko.
- Humanitateek eta zientziek batera diseinatu dituzte tresnak. Diseinu transdiziplinarra eta transepistemologikoa.
- Sinbiosia.
- Dei eta erantzun bidezko ikaskuntza. Erantzun-gaitasunak gaur egun.
- Lineako prestakuntza oso bat graduazioarekin.
- Enpresa- eta industria-arloko abileziak. Aukerak ikusteko gaitasuna eta aliantzak beharrezkoak direnaren kontzientzia.
- Adimen kolektiboa.
- KSlen eta enpresa digitalen arteko lankidetzak.
- Erritmoari eustea.

- Benetako premiak identifikatzea, eta haiei erantzuteko prozedura eta erreminta egokiak ezartzea.

#### Norekin izan dezakegu konfiantza esparru honetan?

- Erakunde publikoekin (tokikoak eta nazioartekoak) izan dezakegu eta izan behar dugu konfiantza, baita erabakiak hartzeko ardura duten pertsonekin ere.
- Industriek batzuetan erakunde publikoek (kulturalak) baino errazago lortu dezakete finantzaketa.

### *Alderdi azpimarragarrienak:*

#### 1. Baterako diseinua - Sinbiosia:

- a. Etika interaktiboa. Dei eta erantzun bidezko ikaskuntza etika integratuarekin, horixe da baterako diseinua.
- b. Ikaskuntza soziala.
- c. Adimen kolektiboa.
- d. Lankidetzaren ahalmena.

#### 2. Abilezia esanguratsuak:

- a. Etorrizun erkide bat ikusteko gaitasuna.
- b. Elkarrekin lan egitea.
- c. Teknologia.
- d. Sormena.
- e. Lehentasunak ezartzea.

#### 3. Prestakuntza formala eta informala:

- a. Biak dira beharrezkoak.
- b. Bideak erabat beharrezkoak dira.

## 3. 2. tresna eta erreminta

Sarea: Elkartzea eta aliantzak sortzea. Sareen sorkuntza eta lankidetzaren erraztea, eta KSIS plataforma baten epe luzerako jasangarritasuna bultzatzea KSlen arteko kolaboraziorako > **Euskadiko Kultura eta Somen Barrutia**

### 2. taldea

#### *Azterketatik etorkizuneko urratsetara:*

##### Zer ari gara ongi egiten? Zerekin konektatzen dugu?

- Zerga-pizgarriak sektorea indartzeko.
- KSlen sektoreek nazioartean duten garrantzia onestea.
- Ahots bakarra izatea sistema politikoak hura entzun dezan.
- Egungo sareak. Adibidez: Kultura eta EITren sormena. Helburuek argiagoak behar dute izan orain.

##### Zer da ongi egiten ez dena? Zer aldatu behar dugu?

### GC3: KSlak eta trantsizio digitala

- Sarea ez da helburua.
- Besteek egiten dutenaren gaineko kontzientziarik eza.
- Ez dago sareen arteko ezagutza-transferentziarik.
- Gaur egun dauden sare gehiegi ahulak dira. Haien arteko komunikaziorik eza.
- Entzuteko abilezia.
- Agenteen artean ahaleginak batzeko dagoen premia kontzientziatzea.
- Batzuetan sareek ez dute ez helbururik, ez zereginik.

#### Zein dira etorkizuneko gure aspirazioak tresna eta erreminta honetarako?

- Jardunbide egokiak - KSlen eragileen arteko sinergia arrakastatsuen adibideak aliantzen eta gardentasunaren bidez.

#### Norekin izan dezakegu konfiantza esparru honetan?

- Inkubagailuak
- KSletako eragin handiko pertsonak hainbat erregio eta hiritan.
- Administrazio publikoa.
- Elkarrekin (ikus-entzunezkoak).
- Hitza duten funtsezko eragileak.
- Agente/bazkide teknologikoak.
- Ikerketako/berrikuntzako zentroak.

### *Alderdi azpimarragarrienak:*

- 1. Ezohiko «susmagarrien» inplikazioa:** Enpresa handi tipiko horietara, funtsezko bazkideetara, eta abar, iristeaz gain, hasieran kontuan hartzen ez ditugun bazkide potentzial horietara iritsi beharra dago.
  - a. Hiri txikiagoetako eta sarritasun txikiagoarekin kontaktatzen diren landa-erregioetako KSletako agenteekin konektatzea.
  - b. Sare-lana eragile teknologikoekin eraldaketa digitala ahalbidetzeko.
  - c. Ezohiko susmagarriak kontuan hartzea.
- 2. Kolaboraziorako eta komunikaziorako agenteak (birtualak):** Sare asko dauzkagu jada eta, horrenbestez, ez da hain beharrezkoa berri bat sortzea; garrantzitsuagoa da hobeto nola kolaboratu daitekeen aztertzea.
  - a. Kolaborazio-formatu hobeak ezartzea, batez ere maila birtualean (lan-formatu berriekin).
  - b. Sare berriekin eta egun daudenekin.
  - c. Konektatzeko erremintak dauzkagu.
- 3. Egungo sareen kohesioa:**
  - a. Sinergia hobeak, interkonexioak, aurkitzen saiatzea.
  - b. Sare bakoitzaren helburu espezifikoetan zentratzea haien egitekoa hobeto ulertzeko.
  - c. Errazagoa da pertsonak sare egokiarekin haien eginkizunaren arabera konektatzea.
  - d. Egungo sareak konektatzea eta haien helburuak hobeto ulertzea. Sarearen helburuari zentzua ematea.

## 4. 3. tresna eta erreminta

Finantza-segurtasuna: Berrikuntza-ekintzen finantzaketa eskala handi eta txikian, arriskuen kudeaketa, baliabideetako inbertsioa > EIT, C&C-ko inbertsio-sarea, **S+T+ARTS**

### 3. taldea

*Azterketatik etorkizuneko urratsetara:*

**Zer ari gara ongi egiten? Zerekin konektatzen dugu?**

- KSlen berrikuntzako funtsezko sektorea.
- Sare-lana.
- Finantzaketa mota berriak sortzen ari dira KSletarako, sektore bakoitzera egokituagoak.
- Erresilientzia, erronketarako egokitzapena.
- Elkarrekin sortzea finantzaketa publikoko prozesuetan sortzaileei laguntzeko.
- Finantzatzeko eta laguntzeko hainbat aukera daude ikasleentzat.
- Zenbait erregio-gobernuk aukerak finantzatzen dituzte ideiak aztertzeko.
- Finantzaketa programa ugari daude Europa osorako eta erregioetarako.
- Aukera eta programa ugari. Eskararen teknizismoei buruz eskuragarri dauden finantzaketa-azalpenak.

**Zer da ongi egiten ez dena? Zer aldatu behar dugu?**

- Dei burokratikoak, prozesu geldoa.
- Irisgarritasun eskasegia. Plataforma zentralizatuak.
- Sormen-industriak ez dira behar beste erakusten, kontzeptu-akatsak daude. Horrenbestez, ez dago finantzaketarik.
- Kateko finantzaketa-mekanismoa.
- Finantzaketa-prozesua konplexua da.
- Ez da erraza programen «zehaztapenak» ezagutzea.
- Ekimenen arteko kolaboraziorik eza baliabideak partekatzeko.
- Dirulaguntzen idazkuntzak gauza gehiago hartu behar ditu barnean.
- Mentoria-programak (badaude, baina gehiago zentratu beharko lirateke sormen-proiektuetarako enpresa-hezkuntzan).
- Finantzatzaileek zailtasunak dituzte sormenaren balio ukiezina ebaluatzeko.
- Nazioarteko finantzaketa eta herrialde kalteberenentzako laguntza falta da.
- Finantzaketa publikoko prozesuan mantsoak dira eta beharrezkoa ez den informazioa gehitzen diete eskaera-dokumentuei.
- Inpaktu sozialeko dirulaguntzak esparru honetako proiektuak komertzialki jasangarriak izan daitezten.
- Erosketa Publiko Aurrekomertzial gehiago behar dugu.
- ETE eta enpresa handietarako dirulaguntzak ETEek enpresa handiekin lan egin dezaten.
- Finantza-terminologia falta da KSletan.
- Sektore pribatua nahiko justua da KSlen inbertsioarekin.
- Ez da epe luzerako orientazio bat.
- Ez da balioesten sormenak eta kulturak finantzaketa publikoan duten inpaktu soziala.
- Prozesu luzeak.

### GC3: KSlak eta trantsizio digitala

#### Zein dira etorkizuneko gure aspirazioak tresna eta erreminta honetarako?

- Dirulaguntzak sinplifikatzea.
- Finantza-hezkuntza gehiago KSletan.
- Ikaskuntza iraunkor gehiago.
- Finantzaketari eta mentoriari buruzko epe luzerako ikuspegi zabalagoa izatea.

#### Norekin izan dezakegu konfiantza esparru honetan?

- Arduradun politikoak eta amaierako erabiltzaileetara bideratutako diseinatzaileak.
- Enpresetako edo finantzen alorreko mentore finantzarioak.
- Arduradun politikoei eta KSletako sektoreek hobeto argitu behar dute beren lanaren finantza-zikloa.

### Alderdi azpimarragarrienak:

1. **Dirulaguntzak sinplifikatzea:** Dirulaguntzak lortzeko prozesua luzea eta konplexua da eta, hori horrela, sinplifikatu nahi izan dugu. Arduradun politikoei zein amaierako erabiltzaileekin prozesuaren interakzioak diseinatzeko ardura dutenek egin behar dute hori. Eragile txikienak eta gutxien ezagunak aliatu boteretsuak izan daitezke. Tokiko merkatuaren ikuspegi berezia eskaini dezakete eta erronkak gainditzen lagundu. Berrikuntza erraztu dezaketen baliabide eta sareetarako sarbidea ere eskaini dezakete. Erabiltzaileek dirulaguntza eskatzeko moduari buruz egiten dituzten komentarioak kontuan izan behar dira.
2. **Finantza-hezkuntza gehiago KSletan:** Aste gutxi batzuk baino askoz ere gehiago iraungo duen hezkuntza. Pertsonak, enpresa-liderrek eta sortzaileek beti izan beharko dute urte baten edo biren bueltan hezkuntza horretara itzultzeko aukera. Sormen-prozesuari osagai enpresarial edo ekintzaile bat gehitu ahalko dioten enpresa-ikasketak edo MBA ikasketak egiten ari diren ikasleekin egingo den parekatze-prozesu batekin osatu daiteke hori.
3. **Ikaskuntza iraunkor gehiago.** Finantzaketaren eta mentoriaren epe luzeagoko ikuspegia eskatzen du honek. Pertsona batek tarte txiki bat soilik aurrera egitea ahalbidetuko dion dirulaguntza bat eskatu beharrean, bi urte baino gehiago iraungo duen finantzaketa-prozesu bat izan beharko genuke. Horrela, lehen mugarrira iritsitakoan, finantzaketa gehiago desblokeatu ahalko da.

## 5. 4. tresna eta erreminta

Jabetza Intelektualeko Eskubideen babesa gaitzea Adimen Artifizialaren aurrean: Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua, eta jabetza intelektualari, datuen guneei eta datuen titulartasunari buruzko legedia > **Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua (53. art.), Aporta ekimena**

### 4. taldea

## Azterketatik etorkizuneko urratsetara:

### Zer ari gara ongi egiten? Zerekin konektatzen dugu?

- Adimen artifizialak eboluzionatzen jarraitu behar du eta gure sormen-prozesuan hura erabiltzeko moduak aurkitu behar ditugu.
- Adimen Artifiziala erabiltzeko printzipio etikoak (titulartasuna sektore publikoan). Kolaborazioa, elkarrizketa, hezkuntza.
- Adimen Artifiziala eta datuen titularrak arautzen saiatzea. Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua babestea, datuen guneei buruzko ekimena.
- Gizartearen ikuspuntu kritikoa.
- Jabetza Intelektualeko Eskubideen kultura zabaltzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako gure euskal sarea.

### Zer da ongi egiten ez dena? Zer aldatu behar dugu?

- Ikaskuntzarako erabilitako materialaren gardentasuna.
- Informaziorik eza (edo hezkuntzarik eza): «mundu guztiak pentsatu aurretik egiten du» moldearen ingurunea.
- Inbertsio publikoak sozietatearen mozkin publikoen aurrean.
- Adimen Artifizialak sortutako edukien originaltasuna edo zuzentasuna ezagutzeko posibilitaterik eza.

### Zein dira etorkizuneko gure aspirazioak tresna eta erreminta honetarako?

- Gardentasun-mekanismoa Adimen Artifiziala eduki bat sortzeko erabili dela jakiteko.
- Egiletza-eredu berriak: nazioartekoa, kolektiboa, oroharreko zenbatekora, irekia/publikoa, historikoa, babes-merkatuak.
- Gidalerroak, hezkuntza eta lanbide berriak egokitzeko gaitasuna.
- Erraz erabiltzeko erremintak.
- Trazabilitatea hobetzea/ahalbidetzea ezagutza berri bat produzitzeko erabilitako informazio-datuen iturriak identifikatzeko.

## Alderdi azpimarragarrienak:

1. **Gardentasuna prozesu osoan:** Garrantzitsua da jakitea norekin ari garen interaktuatzen. Algoritmo horiek entrenatzeko erabilitako edukien egiletzaren hasieratik amaierako emaitzaraino. Adimen Artifizialaren bidez sortu izan denaz jabetzen garen bitartean, kontsumitzen dugun edo ez erabaki dezakegu. Adimen Artifizialak produzitutako edukiek ere inplikazioak izan ditzakete gure kontsiderazio etikoetan eta, hori horrela, transferentzia hori existitzea funtsezkoa dela uste dugu.

2. **Egiletza-eredu berriak:** Trazabilitatea. Eraginkorra izango den eta salbuespen gehiegi ahalbidetuko ez dituen egile-eskubideei buruzko nazioarteko legedi bat behar dugu. Baita egiletza kolektiboko ereduak ere (gaur egun kontuan hartzen ez diren historikoak). Egiletza berriak sortu behar dira hainbat egile konbinatzen direnean.

3. **Alderdi etikoa, datuen alborapena:** Soluzio bat behar dugu datuen alborapenari aurre egiteko. Enpresak gai hau aztertzen ari dira, baina oraindik ez dago soluzio argirik. Adimen Artifiziala etikoki sentsibleak diren eremuetan erabiltzean, proportzio egokiak atxiki behar ditugu.

